

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

**CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES**

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak lankidetzaz hitzarmenak sinatu ditu 14 erakunde eta elkarte artistikorekin

*Foru Gobernuak guztira 1.441.299 euroko gastua egiteko konpromisoa hartu du 2012an egingo diren 2000 kultur ekitaldiak gauzatzeko*

Viernes, 20 de abril de 2012

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilari Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia-k lankidetzaz hitzarmenak sinatu ditu gaur goizean Baluartean 14 erakunde eta elkarterekin.


1.441.299 euroko inbertsioa da guztira, eta 2012. urtean Foru Komunitatean 200 kultur ekitaldi egiteko erabiliko da.

Sinatutako hitzarmenek ondorengo kopuruak ematen ditu aipatzen diren erakunde eta elkarten alde:

- 1) Operaren Lagunen Gayarre Elkarte: 280.257 euro
- 2) "El Colectivo" Nafarroako Antzerki Eskola: 273.876 euro
- 3) Nafarroako Ganberako Opera: 249.800 euro
- 4) Iruñeko Ganberako Abesbatza: 207.350 euro
- 5) Nafarroako Ganbera Abesbatza: 125.000 euro
- 6) Musika eta Arte Eszenikoen Nafarroako Foroa (Echarren Kantu Eskola): 75.567 euro
- 7) Nafarroako Abesbatzen Federazioa: 72.811 euro
- 8) Nafarroako Amateur Antzerki Federazioa: 30.502 euro
- 9) Atena Psicoballet fundazioa: 30.000 euro
- 10) Nafarroako Oreka zirku-eskola: 28.810 euro
- 11) El Tajador gazte-elkartea: 25.427 euro
- 12) Hierba Roja: 20.099 euro
- 13) El Vértigo de la Trapecista kultur elkarte: 15.298 euro
- 14) Haizea Dantzaren Aldeko Nafarroako Elkarte: 6.500 euro

Zuzeneko laguntza jaso ez, baina beren proiektuen zati bat Nafarroako Gobernuaren programa propioen barnean sartzen diren erakundeak. Honako hauek dira:

- Diego Gómez musika-elkartea
- La Ortiga TDS elkarte



Sánchez de Muniáin kontseilaria eta Kulturako zuzendari nagusi Ana Zabalegui, Nafarroako erakunde artistikoetako ordezkariekin.

- La Pamplonesa
- Barañáin abesbatza
- Kon Moción elkarte

Finantzatutako ekitaldien barnean berrikuntzak izango dira: zirku-ziklo bat, dantza garaikideko jaialdiak, jazz-kontzertuak, haur-opera, dantza- eta argazki-ekoizpenak eta pop/rock jaialdi bat. Ekitaldi horiek Foru Komunitate guztian egingo dira, eta haietako batzuk Nafarroako Gobernuaren Kulturaren beraren programetan sartuko dira. Jakinaenez, hitzarmenak sinatu dituzten talde artistikoak lehiaketa bidez aukeratu zituzten Departamentuak sortutako hiru epaimahairen bitartez. Nabarmendu behar da talde horietako seik ez zutela orain arte inolako diru-laguntzarik jaso Nafarroako Gobernuaren Kultura Departamentutik.

Laguntza horiei esker, elkarte onuradunek kultur ekitaldien zenbait programa abian jarri ahal izango dute: antzerki-zikloak, zirkuak, genero lirikoko kontzertuak, ahots-musikako eta herri-musikako zikloak, bai eta dantza-jaialdi batzuk ere. Programazio horiek, Nafarroako Gobernuak garatzen dituen bere programei lotuta, osatuko dute 2012rako eskaintza artistikoa.

Lehiaketa publikoko deialdian 47 elkarteri dagozkion 55 proiektu artistiko aurkeztu ziren. Haietatik, 19k lortu zuten diru-laguntza lortzeko gutxieneko puntuazioa. Deialdiaren oinarriek adierazten zuten laguntzaren zenbatekoa elkarteak eskatutakoaren berbera izango dela, baldin eta ekitaldiaren aurrekontuaren % 70 gaindituko ez balu eta deialdiari emandako aurrekontu guztiaren % 20 gaindituko ez balu.